

# PYSBE AUZOKO ZUHAITZAK ETA BEREN EZAUGARRIAK

**H**ona hemen, auzoko eta bere inguruko zuhaitzen zerrenda bat. Bertan, azken urte hauetan aldatutakoak, lehenagokoak, eta bere kabuz hazi direnak azaltzen zaizkigu.

Gure auzoak, zuhaitzez berpoblazteko baldintza bereziak betetzen ditu, inguruan eremu libre asko dituelako, nahiz eta zenbait proiektu urbanistikoek itzalak hainbat alderdi mehatxatu.

Oraindik lur eremu dexentea daukagu garbitu eta erre kuperatzeko, eta orain arte lortutakoa mantentzeak ere bere lanak ditu. Horretarako beharrezkoa da bizilagun guztiek inguruataz arduratzea eta bere beharraz ohartzea, guztion hezkuntza, bai haur, bai helduena, nahitanahiezkoa dugularik helburu hauek lortzeko.

Hemen duzue bada, auzoko zuhaitzak, berezitasunak eta funtzioa azaltzen duen lantxo bat. Adierazpen guzti hauek «Euskal Herriko zuhaitzak» liburu marduletik ateratakoak ditugu L.M. Garcia Bona egilearena.

Honez gain auzoa eta bere ingurunea margoturik duen plano bat gehitu dugu, eta azkenik «Eroski» aldizkariak hirietako berdeguneei buruz egindako erreportaia.

Probetxuzkoa izan dadila!!!

## ZUHAITZEN GARRANTZI EKOLOGIKOA

Zuhaitzak garrantzi handikoak dira gizonarentzat, eta oro har ludia planetarentzat eta bertan bizi diren izaki guztientzat. Garrantzi hau naturarentzat balio haundikotzat har ditzakegun zenbait puntutan laburtu liteke, beste puntu askokiko askatasunez.

Zuhaitzak basoak eratzen dituzte, lurrian dauden komunitate finkoenak eta konplexuenak direlarik, eta izaki bizi, animali eta landare barietate eta kantitate gehienak gordetzen dituzten komunitateak dira. Desagertzen direnean munduko flora eta faunaren pobretze haundia eta ekologiaren desoreka gertatzen da, horren ondorioak aurretik iragartzerik ez daudelarik.

Zuhaitzak landare guztietan sustrai garatuenak dituzten espezieak dira, eta hori horrela izanik, lur-eraketan gehien laguntzen duten landareak dira, eta zuzenean edo zehiarka lurreko izaki guztiak beren baitan gaude.

Baita ere beren sustrai luzeekin lurra eraginkortasunez finkatzen dute aldapa asko dagoen alderdietan, eta horrela euriari, haizeari, korronteei eta atmosferako agente guztiei eragozten diete, hauek ez dezaten hainbeste urte eta

ahalegin kostatzen den eta izaki bizi guztientzat hain beharrezkoa den sustratu hau arrastaka eraman. Beraz, zuhaitz dira gehien arduratzen direnak gure lurretako erosioa eragozten, bereiziki aldapak dauden alderdietan, Euskalerrian gehiegi daudelarik.

Zuhaitzek baita ere lurraren gainean estaldura handia eratzen dute, euri tantak, kaskabarra edo elurraren bat bateko erortzea geldiarazten dutelarik, Euskalerrian hain sarriak eta garrantzizkoak direnak, eta ez bakarrik alderdi umeletan baizik eta alderdi tropikaletan eta ekuatorialetan ere bai, non euri gutxi erortzen bait da baina erotzen dena uholdeka erortzen da eta zuzenean bere gainera erortzen bada lur guztia eramateko mehatxua egiten du.

Erreka ertzetan zuhaitzak uren bideratzaile garrantzitsuak dira, eta bihurgune edo meandroetan modu garrantzitsu batez gutxitzen dute urak aldeetan egiten duen erosioa, horrekin eragotzi edo, hobeto esan, moteldu egiten dutelarik lurraren eramatea, eta oso bereiziki uholdeak izaten diren aldietan. Urbazterreko zuhaitz hauek desagertzen direnean, errekek erosio-ekintza azkarrago burutzen du eta lur kantitate handiak eramaten ditu etengabe ubidetik aldatuz, eta bere inguruetan bizi diren baserritarrei beren eginbeharrak galeraziz.

Zuhaitzak zalantzarik gabe garrantzizko elementu apaingarriak dira loredi, hiri, kale eta herrietan, zeren eta apaindu bakarrik ez bait dute egiten baizik eta itzala egiten dute eta ingurunea garbitzen dute.

Zentzu honetan kontutan hartu beharra dago hostoak, itzal eta giro-garbitzaile elementu nagusi bezala, oro har gizonaren alturaren gainetik daudela eta honek bere eguneroko lanean erabil ditzakela, zuhamuska edo landare belarkarekin apainduko bagenitu gertatuko ez zena.

Zuhaitzetatik era askotako fruitu jangarriak ateratzen dira eta gizonarentzat elikagarri eta bitamina iturri garrantzitsua direlarik, hala nola gizonak bere probetxurako erabiltzen dituen beste animalia askoren elikagai iturri garrantzitsua dira; sagarrak, laranja, madariak, gereziak, gaztainak, pagaziak, ezkurak, intxaurrak, urrak, pikoak... fruitu hauen erakusgarri txiki bat besterik ez dira.

## DATOEN LABURPENA

Denetara 234 landare zenbatu ditugu, zuhaitz eta zuhamuskak kontutan izanik. Halere hauetatik beren tamainuagatik zuhaitz helduak kontsidera daitezkeenak 95 bakarrik ditugu, eta hauetatik gehienak Platano Arrunt Alboak (73). Beste gehienak bere kabuz sortu dira.


Tamaina ertainekoak 80 inguru ditugu, eta hauetako gehienak azken urte hauetan auzolagunen artean aldatuak izan dira.

Beste guztiak, nahiz eta zuhaitz landareak izan, oraindik oso gazteak dira, eta ikusiko da zuhaitzak izatera iristen diren.

Fruitarbolak orokorrean 57 inguru dira. Hauetatik oso gutxik ematen dituzte fruituak, gehienak gazteak direlako.



# ZUHAITZEN KOKAPENAREN PLANOA



- PLATAFORMA 73
- ASTIGARRAK 19
- ZUMEA 11
- LIZARRAK 29
- EZKIAK 16

14  
4

- ASTIGAR ARRUNTA 4
- ZUMEA 11
- URKIAK, XARMAK 10
- HALTZAK 13
- FRUITARBOLAK OROKORREAN 57
- BESTE MOTAK 19

## ZUHAITZ ZERRENDA

IZENA	GAZTELERAZ	IZEN BOTANIKOA	KOPURUA	AZALPENAK
PLATANO ARRUNT ALBOA	Platano común	Platanus hybrida	73	Oso arrunta auzoan; seguru aski eraikitakoan aldatuak izan ziren kale eta plaza ertzetan.
LIZARRA	Fresno común	Fraxinus excelsior	29	<b>Bertakoa:</b> handienak, Lopene, Burrutene baserria izandako tokian, bere kabuz sortuak. Besteak aldatuak: lau 88-89an, hamasei 89-90an, bat 90-91an. azken hauek Gironako mintegitik ekarriak, azala latzagoa dute hemen sortutako lizarrena baino.
ASTIGAR ZORROTZA	Arce real	Acer Platanoides	13	Zortzi 89-90 neguan aldatuak; lau 90-91an.
ASTIGAR ARRUNTA	Arce común	Acer Campestre	4	<b>Bertakoa:</b> 90-91 neguan aldatuak erreka ondoan.
NEGUNDO ASTIGARRA	Arce negundo	Acer Negundo	2	88-89 neguan aldatuak Isasti 3. eta 5. atzekaldean.
HALTZA	Aliso	Alnus Glutinosa	13	<b>Bertakoa:</b> Zortzi 88-89an aldatuak erreka bazterra errekuperatzeko. Ian ere hori bait da bere habitat berezia. Besteak bere kabuz hasiak baina beti ura dagoen tokian.
URKIA	Abedul	Betula Pendula	7	<b>Bertakoa</b> 88-89an aldatuak. Hiru ihartu ziren eta besteak nekez hazten dira. Urteoro berriro aldatzen dira ihartutako lekuetan. Pakea eta kanposantu bide artean.
XARMA	Carpe	Carpinus Betulus	3	<b>Bertakoa:</b> 90-91an aldatuak erreka ondoan. Galdutako zuhaitza. Aldatuta bakarrik aurki daiteke orain, parke eta loredietan.

## ZUHAITZ ZERRENDIA

IZENA	GAZTELERRAZ	IZEN BOTANIKOA	KOPURUA	AZALPENAK
EZKI HOSTOZABALA	Tilo común	Tilia Plathyphyllos	16	Hamaitika 89-90 neguan aldatuak; bost 90-91an errekaen gainaldean, zelaiaren ertzean.
SASIARKAZIA	Falsa acacia	Robinia Pseudoacacia	4	88-89an aldatuak parkean, transformagailuaren jarrailan.
ZUMEA	Sauce	Salix Sp	11	<i>Bertakoa:</i> Erraz ugariu daiteke adartxo bat lur hezetan sartu ezker. Mota askotako zume edo sahatsak aurki daitezke; aldatutakoak: salix alaba ala s. babylonica, negariak: bere kabuz sortuak: salix caprea.
MAKAL BELTZA	Chopo negro	Populus Nigra	10	Sei 89-90an aldatuak bat 90-91an erreka ondoan. Caldereria Jaizkibel aurrekoak bere kabuz sortuak. Makalak urari lotuak aurkitzen dira. Bertakoa.
ZURZURIA	Alamo blanco	Populus Alba	3	Bat 88-89an aldatuak, bi 89-90an S. Pedroko parkeixoan, errekan gainalderik. Gaitzak jota daude.
LERTXUNA	Alamo temblón	Populus Tremula	1	89-90ean bost landare aldatu ziren. Denak ihartu ziren salbuespen bat ezik erdi bizia mantentzen delarik. Bere kabuzu hasiako batzuk ere baziren Isasti 5. atzekaldean baina arrak jota ihartu ziren orain bi urte. Bertakoa.

## BESTE ZUHAIKKAK ETA ZUHAMUSKAK

IZENA	GAZTELERAZ	IZEN BOTANIKOA	KOPURUA	AZALPENAK
EREINOTZA	Laurel	Laurus Nobilis	5	Loretokietan aldatuak.
ZUHANDORRA	Cornejo	Cornus Sanguinea	-	<i>Bertakoa</i> : Lehen ugaria izan behar zuen. Bere kabuz sortuak.
ARBUSTU ARRUNTA	Aligustre	Ligustum Sp	ugaria	Setoak egiteko oso erabilia. Bi mota aurki ditzakegu: Ligustrum ovalifolium eta Ligustrum japonicum; azkenengo hau apaingarriagoa. «Karraskilo» izenarekin ezagutzen dira.
IZEI GORRIA	Abeto rojo	Picea Excelsa	5	Nahiko landare eskasak, gabonak pasa ondoren aldatutakoak.
PALMONDO TXINARRA	Palmito	Trachycarpus Fortunei	1	Landare exotikoa; Otxoa 1. aurrekaldeko loretokian.
ALTZIFREA	Falso Ciprés	Chamaecyparys Lawsoniana	bi seto	Isasti 1. aldamenean setoak egiteko aldatuak.
EZPELA	Boj	Buxus Sempervirens	3	Loredietan forma borobila emanez apaingarria gisa.
URRITZA	Avellano	Corylus Avellana	1	<i>Bertakoa</i> . Lehen ugaria, Arretxenea atzean, Gorostaren etxe berrien atzekaldean; gaur egun landaretxo bat bakarrik aurki daiteke bi paretan artean.
MISPIRONDO JAPONIARRA	Níspero del Japon	Eryobotrya Japonica	5	Hazitik sortuak, loretokietan. Bi landare eder S. Pedro eta Lopene artean.
ELORRI BELTZA	Espino Negro	Prunus Spinosa	-	Lopene ondoko bidean sasi artean.
PIRAKANTA	Piracanta	Pyracantha Angustifolia	1	S. Pedro Auzoan.
SYRTAKO ARROSA	Hibisco	Hibiscus Syriacus	2	Loretokietan.
MIMOSA	Mimosa	Acacia dealbata	1	Lopene baserri ondoan.
Erromeroa	Romero	Rosmarinus Officinalis	-	Loretokietan.
ARROSA	Rosal	Rosa Sp.	ugaria	Loretoki eta baratza erretzetan apaingarri gisa; mota asko ditugu auzoan.

## FRUITTUARBOLAK

IZENA	GAZTELERRAZ	IZEN BOTANIKOA	KOPURUA	AZALPENAK
INTXAURRONDOA	Nogal	Juglans Regia	4	90-91 neguan aldatuak. Landare gazteak. Txertatuak.
PIKONDOA	Higuera	Ficus Carica	4	Bat 90-91 neguan aldatua auzoko ondoko zelaiari; beste hiru S. Pedron «Lopene» alderako loretokian. Landare gazteak. Txertatuak.
GEREZIONDOA	Cerezo	Prunus Avium	4	90-91an bi landare gazte; txertatuak. Beste bi txertatu gabe Gaintxurisketa kaskotik ekarriak 87-88 neguan. Isasti 5. aren aldamenean.
ARANONDOA	Ciruelo	Prunus Domestica	3	89-90: txertatuak. Landare helduak oraindik ez dute fruiturik eman. Atzeko zelai ertzean.
ABRIKONDOA	Albaricoquero	Prunus Dulcis	1	90-91an aldatuta; gaztea. Txertatua. Zelai ertzean.
GEREZI ARANONDOA	Cerezo-ciruelo	Prunus Ceserifera	1	90-91. Purpura kolorezko hostoak. Apaingarria.
MERTXIKA	Melocotonero	Prunus Armeniacus	21	Baratzetan oso zabaldua; asko gaitzarekin eta gehienak kaskarrak.
UDAREONDOA	Peral	Pyrus Communis	1	90-91an aldatuak; gaztea. Txertatua; zelai ertzean.
SAGARRONDOA	Manzano	Malus Communis	6	Bat 90-91an aldatuta zelai ertzean; gaztea, txertatua. Beste bostak txertatu gabe. S. Pedro atzekaldean eta Pisbeke sarrean.
KAKIA	Caqui	Diospyros kaki	1	90-91an aldatuta zelai ertzean. Gaztea; txertatua.
IRASAGARRONDOA	Membrillero	Cydonia Oblonga	1	90-91an aldatuta zelai ertzean. Gaztea; txertatua.
OTSALIZARRA	Serbal de los cazadores	Sorbus Aucuparia	1	<b>Babestu</b> 89-90 neguan aldatua. Galizko arriskuan; obrak direla eta garaia tik kanpo berlandatu dute, landareak indarra galdiaz.
ELORRI ZURIA	Espino blanco	Crataegus Monogyra	3	Lehen asko izan behar zuen inguru hauean, orain, muestreatxo batzuk besterik ez dira geratzen. Handiena Isasti 1 alboan, pareta artean.
SAGARMINA	Manzano silvestre	Malus Silvestris	1	<b>Babestu</b> : galtzeko arriskuan. 87-88 neguan aldatuta Isasti 5 atzekaldean.